

Andramari festak joan dira eta iraila ekintzez beteta dator



Aurtengo Andramari festak joan zaizkigu, eta baita abuztua ere; baina uda-hondar honetan, iraila ere bete-betea datorkigu Zerainen eta ez da festarako eta ondo pasatzeko aukerarik faltako.

Ohi bezala, eta azken urteotako jende gehienarekin giro onean pasa dira aurtengo Andramari festak. Abuztuaren 13an gibel-jatearekin hasi eta hiru egunez ez da ezer falta izan: umeen jolas eta puzgarriak, tirolata, bizikletaz Goikoetxerako igoera, sagardo edan eta txekor jana, bola jokoa, meza, txakolin dastatzea, pelota partidak, mozorroak, herri kirolak, dantzak, mozorro afaria, erromeriak, gazta dastaketa, dantza-soka, herri-afaria,

asto karrera, herri-txukuntzea... Hiru egunez, elkarrekin egon eta ondo pasatzeko aukera aparta eman digute beste behin Andramariet. Hurrengo urtean gehiago. Bitartean, irudiak errepassatuz goatzeko aukera daukagu festetako XAGUARTEA berezian.

Iraila ere bete-betea datorkigu ordea. Ohiko azokaz gain, aurten bi ekitaldi garrantzitsu izango ditugu. Batetik, hilaren 29an herri-festa egingo da Liztormendiren 50. urteurrena eta kultur etxearen 25. urteurrena ospatzeko. Bestetik, hilaren 22an, jendetza elkartuko da Ampo ere partaide den Gbe-Ner elkarteak Zerainen antolatuko duen urteko festan.

XVIII. azoka ekologikoa irailaren 16an

Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren azokak XVIII. edizioa izango du aurten. Urtero, hutsik egin gabe, zeraindarren auzolanari esker, eta Biolurrekin elkarlanean, azoka bikaina izaten dugu herrian udazkenaren atarian.

Aurtengoa irailaren 16an, igandean, izango da. Goizeko 9etatik eguerdia bitartean produktu ekologikoen salmenta-postuak, tailerrak, erakusketak, artisauak, etab. izango ditugu. Barazkiak, fruta, ogia, gazta, sagardoa, ardoa, olioak, txerriak, gozoak, germinatuak, kosmetika naturala eta tinte naturalak erosi ahalko dira salmenta-postuetan.

Tailerrei dagokionez, gozogintza-koa, umeentzako berezia eta senda belarrekin ukenduak egiten ikasteko eskainiko dira. Horiez gain, urteroko gisara, sagar muztioa egiteko tolarrea, artisauak eta lixibagileak ere izango dira. Eta aurreko nobedade moduan, eta Pasaia Albalde elkarrekin elkarlanean, arrantzontzi tradizional baten erakusketa ere egongo da.



Arratsaldean, herri kirolak izango dira: inguruko sei aizkolarik binaka neurtuko dituzte indarrak sei kanardiko lanean. Zeraindik Xabi eta Eneko arituko dira, Lakiola eta Aitor Urteagaren, eta Joseba Arakama eta Mendiata zegamarren aurka. Ondoren, ikusleen artean animatzen direnekin txinga-jokoa egingo da. Eguna behar bezala amaitzeko, Xapre eta Jose Antonio trikitilariarekin erromeria egongo da iluntze aldera arte.


Azokaz gain, iaz bezala *Goierriko Baratzarekin* elkarlanean, "Goierriko bizitza eta nekazaritza ekologikoaren V. hamabostaldia" antolatu da udazken atarian. Zerainen hitzaldi bat egongo da: irailaren 18an, asteartea, Xabi Akizuk *Etxeko frutarbolak nola zaindu* izeneko hitzaldia emango du iluntzeko 7etan kultur etxean. Ataunen, Ezkio-Itsason eta Ordizian izango dira gainontzeko hitzaldi eta ikastaroak.

Zeraingo 25. urtekaria kalean da

Kultur etxea sortu ondoren, garai hartan kultur elkartearen bueltan zebiltzan herritarrek lehenengo urtekaria argitaratu zuten 1988ko Andramari jaietarako. Orduz geroztik, urtero-urtero herriko festetarako zeraindarrok idatzitako urtekaria kalean izan da. Aurten 25. alea argitaratu dugu eta herritarrek nahiz kanpokoek herriko tabernetan nahiz Mandio dendan eskuratzeko aukera daukate.

Okerrak zuzendu nahian

Nahiz eta asko ahalegindu, ari denak beti sartzen du hanka han edo hemen. Eta urtekari honetan ere badira akats batzuk. Alde batetik, egileen aitortzari dagokionez, ekintzen atala egin zuten Andoni Alustiza, Mikel Oria eta Jokin Intxaustiren izenak falta



dira. Bestalde, txikien txokoan, Oihane Lazkanoiturbururen eta Maialen Alustizaren lanetan ere izenak falta ziren.

Horiez gain, Joxe Mari Etxaluzek Liztormendiren sorrerari eta historiari buruz idatzitako artikuluan berak aurkitu dituen akats batzuk zuzendu nahi ditu. Testuaren pasarte batean 1961ean inauguratu zela jartzen badu ere, 1962an izan zen inaugurazioa. Bestalde, beste atal batean esaten da Joxe Aldasoro Zeraingo apaiz gazteari eskatu zitzaioela soziedade bedein-katzeko eta ez zuela nahi izan, baina hori ez da zuzena; 1969an bolaleku berria egin zenean gertatu zen hori eta ez 1962an soziedadearekin. Akats hauek tarteko Joxe Mari Etxaluzek oker esanak zuzendu eta barkamena eskatu nahi die irakurleei.

Artzainen txaboletara irteera



Zerain Dezagun Fundazioak bultzatuta, eta *Gazta eta Sagardoaren mendia* ekimenaren barruan, Zeraingo herriak esperientzia berria bizitzeko aukera eskainiko du aurrerantzean: artzainen mendiko txaboletara bisita. Eta esperientzia hau bizitzeko lehen aukera herritarrei eskainiko zaie.

Irailaren 8an, larunbata, Jon eta Martinak Aralargo Beaskinen (Igaratzatik gertu) duten txabolara irteera egingo da. Goizeko 9etan abiatuko da autobusa plazatik Guardaetxera bidean. Handik oinez Beaskinera joango da (oinenez joateko zailtasunak eduki baditzake norbaitek, todoterrenoa jarriko da aurrez abisatuz gero) eta bidean azalpenak emango dituzte Fermin Leizaola etnografoak eta Gotzon Ansoleaga Aralargo Parke Naturalaren zuzendariak. Txabolara iristean, urteko

garai ezberdinetan Jonek eta Martinak egindako gazten dastaketa egingo da; eta ondoren txabolan bertan bazkaria emango dute (bazkaltzeko gehienez 40 pertsonentzat lekua egongo da, izena lehenengo ematen duten 40entzat. Hortik aurrerakoek beren bazkaria eraman beharko dute). Arratsaldean oinez Guardaetxera jaitsi eta handik autobusez herrira bueltatuko da. Irteeraren prezioa 25 euro izango da (txabolan bazkalduko ez dutenek 10 euro).

Irteeran parte hartu nahi dutenek izena Mandio dendan eman beharko dute. Izena emateko azken eguna irailaren 5a, asteazkena, izango da. Herritar guztiek izango dute joateko aukera, baina bazkaltzeko kopurua mugatua denez, izena ematen duten lehenengo 40ek bakarrik izango dute txabolan bazkaltzeko aukera.

Herri-festa egingo da irailaren 29an



Irailaren 29a, larunbata, festa eguna izango da Zerainen. Liztormendi elkarteak 50 urte eta Oa kultur elkarteak 25 urte betetzen dituztela ospatzeko, bi elkarteek elkarrekin herri guztiarentzako festa antolatu dute hilaren amaierarako.

Egitarau bete-betea antolatu dute, eta xehetasunak hurrengo Xagu-Artean agertuko badira ere, honako programa aurreratu daiteke: goizean herritarrentzako bola txapelketa eta haurrentzat pailazoak izango dira. Eguerdian triki-kantu-poteoa egingo da, eta ondoren herri-bazkaria frontoian. Arratsaldean bertso saioa izango da. Iluntzean berriro ere poteoa izango da trikitilari eta bertsolariekin. Eta eguna ondo amaitzeko pintxo batzuk eta trikitilarekin erromeria egongo dira. Zer ospatua badago eta seguru asmatuko dugula nola ere!

Peregrinazioa irailaren 1ean



Urteroko legean, Arantzazuko peregrinazioa egin zen iraileko lehen larunbatean. Guztira 40 lagun inguruk parte hartu zuten. Eguraldi freskoarekin, baina giro ezin hobean joan zen eguna.

Ner eguna Zerainen ospatuko dute irailaren 22an

Ampo eta beste hainbat kooperatiba elkartzten dituen Gbe-Ner elkartearen urteko festa, Ner eguna, Zerainen ospatuko dute irailaren 22an. Guztira 400-500 lagun inguru etorriko direla espero da eta beren gainontzeko ekitaldi eta ekintzez gain, herrian bisita egingo dute eta bazkaria frontoian izango dute. Gbe-Ner-go antolatzaileek Zeraingo herriari kolaborazioa eskatu diote baliabide eta azpiegiturak erabiltzeko.



UZTAILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
							1
Euria (l/m)	GUZTIRA : 26,25l.						0,75
Cº altuena	ALTUENA: 35º						19
Cº baxuena	BAXUENA: 8º						13
	2	3	4	5	6	7	8
Euria (l/m)	0	0	0,25	2	0	0	0
Cº altuena	25	30	26	21	24	30	24
Cº baxuena	8	12	13	15	14	12	16
	9	10	11	12	13	14	15
Euria (l/m)	0	2,5	1,5	0	0	4,5	0,5
Cº altuena	20	20	19	25	32	21	22
Cº baxuena	13	13	14	10	12	16	13
	16	17	18	19	20	21	22
Euria (l/m)	0	0	0	0	1	0,25	0
Cº altuena	28	32	35	27	22	25	24
Cº baxuena	11	12	15	15	16	15	16
	23	24	25	26	27	28	29
Euria (l/m)	0	0	0	6	5	0	2
Cº altuena	27	31	34	35	30	21	23
Cº baxuena	13	12	16	19	18	18	15
	30	31					
Euria (l/m)	0	0					
Cº altuena	26	30					
Cº baxuena	16	14					

Uztaila lehorra eta bero handirik gabea

Uztaila giro freskoekin hasi genuen. Lehen hamabostaldian bi egunetan baino ez zen tenperatura 30 gradura iritsi, eta 15 gradutik behera ia egun guztietan jaitsi zen termometroa (8 gradu arte hilaren 2an). Gainera, hamabostaldi horretan 7 egunetan zeozter busti zuen, nahiz eta 9 litro bakarrik bota guztira. Alegia, hilaren lehen partea gorrin-giro aiproposekoa izan genuela. Bigarren hamabostaldian iritsi zitzaigun uda-udako giroa: tenperaturak gora eta euri-egun gutxi, lau guztira. Orokorrean, bada, bero zakarreko egunak gutxi eta litro-tan euria ere gutxi utzi digu uztailak.



Zeraigo plaza agertzen den artelan garrantzitsua herrira ekarri dute



Alejandro Irureta margolari tolosarrak 1895ean, Zeraigo plaza agertzen den koadro bat margotu zuen. Koadro hori Kutxaren ondarearen parte da, baina hainbat urtetarako Zeraigo herriari utzi dio orain. Zerainen hainbat adiskide-ren laguntzari esker Udalak koadro garrantzitsu hori herrira ekartzea lortu du. Abuztuaren 13an, Carlos Ruiz Kutxa Fundazioaren buruak Jose Manuel Oria alkateari eskura pasa zion artelana.

Iraileko ekintzak antolatzen laguntzeko auzolanerako deia

Iraila ekintzez betea datorkigu eta auzolanerako aukera izango dugu herritarrok. Ohi bezala, azoka egunean lanean edo bezperan postuen montaketan izango dugu lehen hitzordua (larunbatean, hilak 15, arratsaldeko 5etan plazan). Bestalde, hilaren 22an Gbe-Ner-ekoei laguntzeko goizeko 9etan mahai-montaketa egingo da frontoian. Hurrengo egunean jasotzen izango da lana. Eta gauza bera 29ko festarako. Auzolanerako prest daudenei tabernetan jarriko diren zerrendetan izena emateko dei egiten zaie.

Lur funtsei buruzko bilera

Fundazioak herriko lur-bankuak sortzeko aukerari buruzko bilera antolatu du. Irailak 27, iluntzeko 7etan kultur etxean.